



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2020ko ekainaren 11

67. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### E S A I L A:

##### **Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da etxerik gabeko pertsonentzako etxebizitza-politikarekin jarrai dezan, bereziki Housing First programarekin. Osoko Bilkurak onetsia (2. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da aparteko neurriak har ditzan unibertsitateko beken deialdian eta NUPeko 2020-2021 ikasturterako matrikulazioan. Osoko Bilkurak onetsia (2. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da deseskalatze-prozesuan mugaz gaindiko nafar espazioa kontuan har dezan, eta Nafarroako Gobernua, berriz, mugaz gaindiko lankidetzarako politika aktiboak bultza ditzan. Osoko Bilkurak onetsia (3. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Osasun Departamentua premiatzen da kontabilitate analitikoko kalkulu bat egin dezan, COVID-19a duten gaixoen tratamenduaren eta prozesu ezberdinen kostuari dagokionez. Osoko Bilkurak onetsia (4. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da arau bat taxutu eta susta dezan, erizaintzako zainketa lagungarrietako teknikariei eta osasun arloko teknikariei osasun arloko gainontzeko langileentzako ezarritako baldintza bertsuetan lanbide-karrera aitortzeko. Osasun Batzordeak onetsia (5. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Osasun Departamentua premiatzen da osasun-garraioaren lizitazioa berehala egin dezan. Osasun Batzordeak onetsia (5. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Osasun Departamentuak 2014/2020 aldirako sustatu duen Kronikoen Planeko dementzien atalaren ezarpena osa dezan. Osasun Batzordeak onetsia (6. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gure erkidegoaren garapen ekonomikoan zuzenean esku hartuko duen Banku Publiko bat sor dezan. Osoko Bilkurak ezetsi du (6. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bere egitura alda dezan eta murrizt dezan departamentu-kopurua. Osoko Bilkurak ezetsi du (7. or.).

#### H S A I L A:

##### **Bestelako testu arau-emaileak:**

- 5/2020 Foru Lege-dekretua, maiatzaren 20koa, premiazko neurriak onesten dituen koronabirusaren (COVID-19) osasun krisiak eragindako inpaktuari aurre egiteko. Osoko Bilkurak baliozkotu du (8. or.).

---

**E saila:**  
**INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da etxerik gabeko pertsonentzako etxebizitza-politikarekin jarrai dezan, bereziki Housing First programarekin.**

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2020ko ekainaren 4an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da etxerik gabeko pertsonentzako etxebizitza-politikarekin jarrai dezan, bereziki Housing First programarekin”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroa-

ko Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du etxerik gabeko pertsonentzako etxebizitza-politikaren aldeko apustua egiten jarrai dezan, bereziki Housing First programarekin, programa hori Nafarroa osora hedatuta”.

Iruñean, 2020ko ekainaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da aparteko neurriak har ditzan unibertsitateko beken deialdian eta NUPeko 2020-2021 ikasturterako matrikulazioan.**

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2020ko ekainaren 4an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da aparteko neurriak har ditzan unibertsitateko beken deialdian eta NUPeko 2020-2021 ikasturterako matrikulazioan”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, behin Unibertsitateetako Ministerioak urkila-sistema kenduta, 2019-2020 ikasturtekoa baino txikiagoa izan dadin

2020-2021 ikasturterako matrikularen prezioa, eta gutxienekoa izan dadin baldin eta gehieneko eta gutxieneko prezioen sistema bat ezartzen bada.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, COVID-19aren krisia dela-eta seihileko honetan ukitu diren irakasgaien kasuan, lehenengo matrikularen prezioa ezar dezan bigarren eta hirugarren matrikuletan, baldin eta NUPeko ikasleek, arazoak arazo, horietan berriz ere matrikulatu behar badute heldu den ikasturtean”.

Iruñean, 2020ko ekainaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## **Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da deseskalatze-prozesuan mugaz gaindiko nafar espazioa kontuan har dezan, eta Nafarroako Gobernua, berriz, mugaz gaindiko lankidetzarako politika aktiboak bultzatzen.**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2020ko ekainaren 4an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da deseskalatze-prozesuan mugaz gaindiko nafar espazioa kontuan har dezan, eta Nafarroako Gobernua, berriz, mugaz gaindiko lankidetzarako politika aktiboak bultzatzen”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du frantziar hiritarrei utz diezaien modu murriztu eta mugatuan sartzen mugalderako merkataritza-establezimenduetara.

Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du mugaz gaindiko nafar espazioa kontuan har dezan une honetan abian den deseskalatze-prozesuan, halako moduan non malgutze-neurriak hartuko baitira albatz lasterren merkataritzaren, turismoaren, abeltzaintzaren, osasungintzaren, kulturaren nahiz familien esparruetan, bai eta mugaz gaindiko europar proiektuak kudea ditzan ere.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du mugaz gaindiko lankidetzarako politika aktiboak bultzatzen, Euroeskualdearen esparruan eta zuzenki ukitutako toki entitateekin batera, barnean hartuko dituztenak koronabirusaren krisiak gehien kaltetu dituen sektoreak nahiz garrantzi bereziki jotzen direnak, hurrengo urteotarako nafar nahiz europar ildo estrategikoen barnean arituz.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du mugaz gaindiko plan strategi-

ko bat taxutu dezan, lurralde mugakideen, toki entitateen, elkarteen eta herritarren arazo eta erronka nagusiak aztertuko dituen eta horiei konponbide bat ematen saiatuko dena, horiekin guztiekin batera egindako analisi batetik abiatuta.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako eta Espainiako gobernua premiatzen ditu kontuan har dezaten mugaz gainera zer eragin duen oraingo alarma-egoeraren ostean aplikatu beharreko leheneratze eta pizte neurrietan, ukitutako herrietako biztanleentzat ekonomia- eta enplegu-susperaldi albatz azkarrena ahalbidetzeko xedez.

Nafarroako Parlamentuak Espainiako zein Nafarroako Gobernua premiatzen ditu Europar Batasun osoaren erantzun koordinatu bat susta dezaten, COVID-2019 pandemiaren olatu berrien edo gisako egoeren aitzinean. Erantzun koordinatu horrek beharrezkoa den neurri txikienean murriztu beharko du europar herritarrak Batasuneko lurraldearen luze-zabalean askatasunez mugitzeko ahalmena, segurtasun zein osasun publikoaren inguruabarrek gomendatzen dutenari jarraikiz. Halaber, kontuan hartu beharko du mugalderetan dauden eskualde eta herrietako errealitate sozio-ekonomikoa. Era berean, bai muga-ixtea bai muga-irekitzea modu sinkronizatuan egin beharko dituzte ukitutako estatu-tako administrazioek.

Nafarroako Parlamentuak erabaki du mozio hau helaraztea Europako erakundeei, bere edukia kontuan har dezaten egitekoa den Europako Berreraikitze Planeko irizpideak prestatzeko”.

Iruñean, 2020ko ekainaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## **Erabakia. Horren bidez, Osasun Departamentua premiatzen da kontabilitate analitikoko kalkulu bat egin dezan, COVID-19a duten gaixoen tratamenduaren eta prozesu ezberdinen kostuari dagokionez.**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2020ko ekainaren 4an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Osasun Departamentua premiatzen da kontabilitate analitikoko kalkulu bat egin dezan, COVID-19a duten gaixoen tratamenduaren eta prozesu ezberdinen kostuari dagokionez”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak aitortu eta eskertu egiten dizkie Nafarroako osasungintzako profesional guztiei COVID-19ak eragindako larrialdiari aurre egiteko erakutsi duten dedikazioa eta egin duten lana, hori izan baita azken hamarkada hauetako osasun-erronkarik nagusiena.

2. Nafarroako Parlamentuaren ustez, osasun krisi honetatik atera daitekeen ondorioetako bat da gure osasun sistema publikoa indartu beharra dagoela, eta haren finantzaketa blindatu, ezin baita koiuntura ekonomikoen mende egon. Ildo horretatik, gaitzetsi egiten du 2008ko krisi ekonomikoan egindako kudeaketa; izan ere, Osasun Departamentuak “doikuntza-plan” bat ezarri zuen 2011ko irailetik aitzina, halako moduan non

legegintzaldi hartan % 15eko murrizketa egin baitzen eta zenbait zerbitzu pribatizatu baitziren. Hori dela eta, egungo Nafarroako Gobernua premiatzen du ez dezan halako neurririk ezar eta, oso aitzitik, osasungintza publikoaren finantzaketa eta prestazioak mantentzen eta indartu ditzan, sektore pribatuaren interesen aitzinean.

3. Nafarroako Parlamentuak orobat dio ezen estatuko legedi indardunean oinarrituz pandemia honetan ezarri den “lankidetzaren publiko-pribatua” eta “Nafarroako osasun-sistema integratua” berdintasunez egin behar direla ondorio ekonomikoei dagokionez, bereizigabeki erabili baitira baliabide publikoak eta baliabide pribatuak. Hori dela-eta, Osasun Departamentua premiatzen du kontabilitate analitikoko kalkulu bat egin dezan COVID-19a duten gaixoen tratamenduaren eta prozesu ezberdinen kostuari dagokionez, eta kasuan kasuko zenbatekoak ordaintzeko irizpidea ezar dezan Osasunbidean ezartzen diren erreferentziazko kostuetan oinarri harturik, halako moduan non zenbateko horiek ez baitira inolaz ere handiagoak izanen prozesu eta artatze horiek berek Osasunbidean duten kostua baino”.

Iruñean, 2020ko ekainaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da arau bat taxutu eta susta dezan, erizaintzako zainketa lagungarrietako teknikariei eta osasun arloko teknikariei osasun arloko gainontzeko langileentzako ezarritako baldintza bertsuetan lanbide-karrera aitortzeko.**

*OSASUN BATZORDEAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordeak, 2020ko ekainaren 3an egindako bileran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da arau bat taxutu eta susta dezan, erizaintzako zainketa lagungarrietako teknikariei eta osasun arloko teknikariei osasun arloko gainontzeko langileentzako ezarritako baldintza bertsuetan lanbide-karrera aitortzeko”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroa-

ko Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du egin beharrekoak egin ditzan, osasun arloko teknikariei eta erizaintzako zainketa lagungarrietako teknikariei lanbide-karrera aitordakien, osasun arloko gainontzeko langileentzat ezarritako baldintza bertsuetan”.

Iruñean, 2020ko ekainaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

**Erabakia. Horren bidez, Osasun Departamentua premiatzen da osasun-garraioaren lizitazioa berehala egin dezan.**

*OSASUN BATZORDEAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordeak, 2020ko ekainaren 3an egindako bileran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Osasun Departamentua premiatzen da osasun-garraioaren lizitazioa berehala egin dezan”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentua premiatzen du osasun-garraioaren lizitazioa berehala egin dezan.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentua premiatzen du Tuteran zainketa intentsiboen bigarren unitate bat berehala para dezan.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentua premiatzen du kalitatezko osasun-garraioaren zerbitzua bermatzeko ezarri beharreko neurriak berehala ezar ditzan, osasun-garraioaren kontratu berria esleitu arte itxaron gabe, bereziki Zangozako eta Tuterako eskualdeetan”.

Iruñean, 2020ko ekainaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Osasun Departamentuak 2014/2020 aldirako sustatu duen Kronikoen Planeko dementzien atalaren ezarpena osa dezan.**

### *OSASUN BATZORDEAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordeak, 2020ko ekainaren 3an egindako bileran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Osasun Departamentuak 2014/2020 aldirako sustatu duen Kronikoen Planeko dementzien atalaren ezarpena osa dezan”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“1. Nafarroako Gobernua premiatzen da gaixo kronikoen estrategia ezar diezaien dementziak dituzten gaixoei eta beren familiei, eta arreta-eredua sendotu dezan, profesionalak aintzat hartuta eta gauzatu gabe dauden ekimenak garatuta, hala nola deliriuma prebenitzeko, detektatzeko eta tratatzeko protokolo bat zehaztea ospitaleko nahiz ospitalez kanpoko esparrurako –egoitzak barne–; egonaldi ertainerako oheak jartzea dementzia duten gaixoentza, edota dementzietarako bera-riazkoaginte klinikoko koadro baten garapen teknologikoa.

2. Nafarroako Gobernua premiatzea oinarriko osasun laguntzako, ospitaleetako nahiz egoitzazentroetako profesionalen prestakuntza etengaberrako plana indar dezan, gaixotasun horretan ohi-koenak eta funtsezkoenak diren arazoei eta bereziki jokabide-nahasmenduen trataerari begira, eta dementzia duten gaixoen zaintzaileen prestakuntza sendotu dezan, Nafarroako zaintzaile guztiak aintzat hartuta.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du informazio-sistemak gara ditzan, dementzia duten pazienteen laguntza-prozesua, prozesuaren efizientzia eta segurtasuna hobetzen laguntzeko.

4. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du al bait lasterren onets dezan Alzheimerraren 2019tik 2023ra bitarteko Plan Nazionala”.

Iruñean, 2020ko ekainaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gure erkidegoaren garapen ekonomikoan zuzenean esku hartuko duen Banku Publiko bat sor dezan.**

### *OSOKO BILKURAK EZETSI DU*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2020ko ekainaren 4an egindako bilkuran, mozio bat ezetsi zuen, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baitzen gure erkidegoaren garapen ekonomikoan zuzenean esku hartuko duen Banku Publiko bat sor zezan. Mozioa Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak

aurkeztu zuen eta 2020ko otsailaren 14ko 23. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko ekainaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bere egitura alda dezan eta murrizt dezan departamentu-kopurua.**

*OSOKO BILKURAK EZETSI DU*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2020ko ekainaren 4an egindako bilkuran, mozio bat ezetsi zuen, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baitzen bere egitura alda zezan eta murrizt zezan departamentu-kopurua. Mozioa Marta Álvarez Alonso andreak aurkeztu

zuen eta 2020ko ekainaren 2ko 62. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko ekainaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

**H saila:**  
**BESTELAKO TESTU ARAU-EMAILEAK**

---

**5/2020 Foru Lege-dekretua, maiatzaren 20koa, premiazko neurriak onesten dituen koronabirusaren (COVID-19) osasun krisiak eragindako inpaktuari aurre egiteko.**

*OSOKO BILKURAK BALIOZKOTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2020ko ekainaren 4an egindako bileran, baliozko zuen 5/2020 Foru Lege-dekretua, maiatzaren 20koa, premiazko neurriak onesten dituen koronabirusaren (COVID-19) osasun krisiak eragindako inpaktuari aurre egiteko. Foru Lege-dekretua 2020ko maiatzaren 25eko 111. Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta 2020ko maiatzaren 25eko 58.

Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1. artikuluan ezarritakoa betez, erabaki hau argitara dadin agintzen dut.

Iruñean, 2020ko ekainaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias